

# LAU HAIZETARA: HERRIKO HIZKUNTZAKO-MUNITATEA EGITURATZEKO SAIOA

Xabi Zabaleta (Lau Haizetarako lehendakaria)



Hizkuntza komunitatea baterabiltzea da Lau Haizetararen helburua.

Lau Haizetara euskaldunon elkartearen egun zertan ari den eta aurrera begira dituen erronka eta egiteko nagusiak zein diren azaltzea da artikulu honen asmoa. Lehenik, ordea, euskara elkartearen jatorriari buruzko aipamen historiko batzuk egingo ditut, ikuspegi zabalago bat izateko. Bigarrenez, 10. urteurrenaren atarian –1992ko azaroaren 22an onartu zen eraketa-estatutua– elkartearen zertan den azaltzeko, antolamenduaren eta jardueren ikuspegi orokor bat ematen saiatuko naiz. Azkenik, aurrera begira jarriko naiz, nire ustez datozen urteetan Lau Haizetararen egitekoak zein norabidetan eta nola gauzatu beharko diren azaltzeko.

## Sorrera garaia

Lau haizetara une eta egoera jakin batean sortu zen. Ez zen kasualitate hutsa izan. 90eko hamarkadaren hasieran baziren horrelako urrats bat emateko funtsezkoak ziren hainbat faktore:

- 80ko hamarkadan euskalgintzan aritu zirenen eskarmentua. Urte haietan alderdikiak, gizarteko beste arlo askotan bezalaxe, eragin nabarmena zuen euskalgintzan, eta garai hartan egindako saioetan (EHE, EKB...) ez zen lortu euskaldun guztiak baterabiltzea. Ondorioa zen euskararen hizkun-

tza komunitatea desegituratuta zegoela, indarrak alferrik galtzen zirela eta jendea desmotibatu egiten zela. Atomizazio egoera hori aldatzeko herri-ekimen berri baten beharra ikusi zuten askok.

- Jose Mari Sanchez Carrión Txepetx irakaslearen hizkuntzen bizitzari buruzko teoria. Lan honek modu logiko eta koherente batez agertzen zuen, besteak beste, hizkuntza gutxitu batek normalizazio bidean eman beharreko urratsak zein ziren.
- AEDren (Arrasate Euskaldun Dezagun) euskararen aldeko herri-ekimena. Ideologia desberdinetako euskaltzaleak euskararen alde elkarrekin jardun zezaketela frogatu zuten. Hizkuntza komunitatea egituratzeari ekin eta bere jarduna hizkuntzaren funtzioak berreskuratzera bideratu zuten (komunikabideak, harreman-sareak, eskola orduz kanpoko jarduerak, hitzarmengintza...).

Hiru faktore horiek ekarri zuten euskara elkartearen loratze bat 90eko hamarkadaren hasieran. Herri askotan sortu ziren euskara elkarteak garai horretan. 1990 eta 1993 bitartean euskara elkarteak sortu zituzten herri hauetan: Tolosa, Bergara, Oñati, Eskoriatza, Lasarte-Oria, Donostia, Eibar, Andoain, Zumarraga-Urretxu, Barakaldo, Portugalete, Gasteiz

eta Beasain. Lau Haizetararen sorrera, beraz, loraldi horretan kokatu behar dugu.

### Gaur egungo egoera

Une honetan Lau Haizetara zer den eta zertan ari den azaltzen saiatuko naiz hurrengo lerroetan. Lau Haizetarak herriaren erdialdean du egoitza, Santxoenean kalean, 2002ko urtaririlaz gerotik. Hazten ari den elkarte da, azken bi urtean bazkideen kopuruak nabarmen egin du gora, eta egun 258 bazkide ditu. Izaera autonomoa du, hots, euskara-elkarte ez diren erakundeekiko harreman organikorik ez du. Euskaltzale guztiei irekia dago eta euskaldunen bilgune izan nahi du.

Antolaketari dagokionez, Bazkideen Batzar Nagusia da organo gorena, eta Zuzendaritza Batzordea arduratzen da elkarte zuzentzeaz eta helburuak beteko direla bermatzeaz. Elkar-tearen egitekoak hainbat esparrutara zabaltzen direnez, lau sailetan antolatua dago:

1.- *Hedabideak*. Lau haizetara aldizkaria elkarteak eman duen fruiturik ezagunena dela esango nuke. Herriar gehienek ezagutzen dute eta 2.700 ale banatzen dira herriko etxe, komertzio, lantegi eta ikastetxeetan. 1994ko apirilean kaleratu zen lehen aldiz eta une honetan bi asmo aurrera atera nahian dabil hilabete-karia. Batetik, maiztasuna handitzea, hau da, hilabete-kari izatetik hamabostekari edo astekari izatera igarotzea; eta, bestetik, eskualdeko beste euskarazko komunikabideekin elkarlanean aritzea, informazio eta produktu hobeak eskaintzeko asmoz.

2.- *Haur eta gazteak*. Haur eta gazteen aisialdian, eskola orduz kanpoko jardueretan eta kirolean euskararen presentzia areagotu



Ttakalo ludotekan haurrak jolasean.

eta erabilera sustatzea da helburua. Helburu horiek lortzeko, Lau Haizetara lankidetzan ari-zen da Errenteriako Udalarekin eta Oarsoaldeko Garapen Agentziaren Euskara Batzordearekin. Emaitzak honako hauek:

Ttakalo ludoteka. 1996an sortu zen, haurren euskararekiko motibazioa indartu eta erabilera sustatzeko. 2001-02 ikasturtean Oarso institutua zeneko egoitza berrituan 55 haur aritu dira.

Eskolatik kalera, 6-14 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat eskola orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko programa. Aurten herriko 34 elkartek sinatu dute hitzarmena, eta denok batera ospatu zuten ekainaren 8an ikasturte amaierako jaia.

Zirikitu Lau Haizetararen haur eta gazteen taldea. Aurten lehen aldiz, Langaitz ikastolako ikasleentzat udaleku irekiak antolatzeke ardura hartu dute. Ekaina eta uztailla bitartean 3 eta 6 urteko 60 haurrek hartu du parte udaleku hauetan.

3.- *Kultura*. Xenpelar bertso eskola da lantaldetik zaharrena. Bertso-larritza irakatsi eta sustatzeaz gain, hainbat bertso saio eta lehiaketa antolatzen ditu urtean zehar: Zapiain anaiak eta Ibon Zabala bertso-paper lehiaketak, Txanxangorri saria, gazteen bertso-afaria eta jai egun berezietako saioak, besteak beste. Ikasturte honetan 20 ikasle aritu dira bertso eskolan.

Kulturaren esparru honetan aipatzekoak dira, halaber, elkarteak antolatzen dituen mota guztietako kultur ekintzak. Adibidez, Xenpelar Kultur Astea, motibazio saioak, hitzaldiak eta unean uneko beste hainbat jarduera.

4.- *Euskalduntzea*. Euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak elkartu eta euskaraz aritzeko aukera izan dezaten jarri zen abian Mintzalaguna egitasmoa iaz, herriko hiru euskaltegien eta Udalaren laguntzarekin. Euskaraz jardun ahal izateko, euskaldunen arteko harreman-sare bat sortu eta espazio berriak eskaintzea da helburua. Asmo horiek bete daitezten antolatzen dira, esaterako, Gaztainerre jaia negu aldera, eta mintzalagunekin tarteka egiten diren irteerak.

Labur beharrez, atal honetan aipatu gabe utzi ditut Lau Haizetarak ia 10 urteko ibilbidean sortu, bultzatu, garatu eta lagundu dituen beste ekintza asko. Nahi duenak, hala ere, aukera izango du elkartearen baitan egindako guztiaren berri zehatza izateko, besteak beste, 10. urteurrenaren inguruan azaroan antolatuko den erakusketan.



Gaztainerre jai herriko hiru euskaltegiek eta Lau Haizetarak antolatzen dute.

### Hiztunak eta erabilpen-esparruak gehitu

Batzuek gizarte "elebidun" batean bizi gara la badiote ere, oraindik orain, euskara hizkuntza gutxitua da gure herrian. Denbora luzean jasaten ari den ordezkatzeko prozesuaren ondorioz, euskararen osasuna ez da guk nahi genukeena. Horregatik Lau Haizetararen xede nagusia herriko hizkuntza egoeraren normalizazioa da.

Helburua normalizazioa izanik, nahitaezkoa da hizkuntza komunitateko partaide guztiak norabide berean lanean jartzea, nor bere mailan: ama hizkuntza euskara dutenek hiztun oso izateko ahalegina eginez; euskaldun ez direnek euskara ikasiz, eta dena delakoagatik euskara ikasi ezin dutenek beren ondorengoei euskaldun izateko bidea zabalduz. Lau Haizetarak egiteko horietan motibazio sortzaile, bultzatzaile, akuilatzaile eta laguntzaile izan beharko du.

Lau Haizetarak ahalegindu behar du, bestalde, ezagutzaren eta erabileraren arteko tartea murrizten. Horretarako etxe-giroan eta auzoan, lagunartean eta kale-bizitzan euskara eguneroko komunikazio tresna izan dadin bitartekoak jarri beharko ditu. Euskararentzat

ezinbestekoa da espazio horiek berreskuratzea. Ez da nahikoa soilik goi mailako funtzioetan aurrera egitea (administrazioan, hedabideetan eta irakaskuntzan), nahiz eta aurrerapen horiek gaitzestekoak ez diren.

Gero eta hiztun gehiago eta gero eta erabilpen-esparru gehiago eskaintzea izan behar du Lau Haizetararen erronka. Hiztunak euskaraz jardunaraziko dituen ekintzak eta zerbitzuak antolatu beharko ditu, euskal hiztunak elkarlanean jarritz, euskalgintzan ari diren herriko beste talde, erakunde eta Udalarekin batera. Horrela lortuko da euskarari balio berria ematea (prestigioa) eta euskararentzat esparru berriak zabaltzea.

Lau Haizetararen egiteko nagusia, azken batean, euskaldunen hizkuntza komunitatea egituratu eta trinkotzea da, eta hori herrigintzarekin oso lotuta dago. Izan ere, hizkuntza komunitate batentzat bi dira funtsezko osagaiak: hiztunak eta hizkuntza. Xalbador bertsolariak bertsotan adierazi zuen legez, "herria da gorputza, hizkuntza bihotza". Biak dira beharrezko eta beren arteko egitura pitzatzen hasten bada, euskal izatearen sarea desintegratzen hasiko da: "bertzetik bereixtean bietarik baxa, izaitte honendako segurra hil hotza". Euskarak bizitzeko hiztunak behar ditu; eta hiztunok gure nortasun adierazle nagusia galdu nahi ez badugu euskara behar dugu bizi, euskara delako euskaldunen herria.

Lurralde zehatz bat baino  
Zerupe jakin bat baino  
are areago,  
euskara da  
euskaldunen herria.

Artze

P.D. Artikulo hau idazteko baliagarri izan zaizkit:

- Etxegoien, Juan Carlos, Xamar, (2001), Orekan Herri eta Hizkuntzen ekologiaz, Pamiela, Iruñea.
- Odriozola, Joxe Manuel, (1998), Hizkuntza, kultura eta gizartea, Euskaltzaindia eta BBK fundazioa, Bilbo.
- Arruti, Iñaki, (1995), «Euskara elkarteak: jatorria eta norabidea», BAT, 16. Zenbakia, Donostia.